

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 646/2018 Erabakia, azaroaren 27koa, zeinaren bidez onesten baita aldatzea maiatzaren 22ko 480/2007 Erabakia, datu pertsonalen babesaren (DBLO) abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren eraginpean dauden Aldundi honetako fitxategien segurtasunerako egitura funtzionala onetsi zuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendura egokitzeko

Europako Parlamentuak eta Kontseiluak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez 2016ko apirilaren 27an pertsona fisikoen babesari buruz ezarritako 2016/679 Araudiaren (EB) arabera, tratamenduaren erantzuleak neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko ditu, tratamenduaren izaera, esparrua, testuingurua, xedeak eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetan egon daitezkeen arriskuak kontuan hartuz, tratamendua datuen babesari buruzko araubide orokorraren eskaerekin bat datorrela egiaztatzeko eta bermatzeko helburuarekin.

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 22ko 480/2007 erabakiaren bidez, datu pertsonalen babesaren abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoak eragindako Arabako Foru Aldundiaren fitxategien segurtasunerako egitura funtzionala onartu zen. Horrela, zenbait rol ezarri eta rol bakoitzak, datuen babesaren ikuspegitik zituen betebeharrak zehaztu ziren.

Datuen babeseko araudi orokorrak lanpostu funtzionalen definizio hauek ezartzen ditu:

a) Tratamenduaren erantzulea edo «erantzulea»: pertsona fisiko edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzua edo beste erakunde bat, bakarrik edo beste batzuekin, tratamenduaren xedeak eta baliabideak ezartzen dituena; europar batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak tratamenduaren xedeak eta baliabideak ezartzen baditu, tratamenduaren erantzulea edo hura izendatzeko berariazko irizpideak europako batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ezarri ahalko ditu.

b) Tratamenduaren arduraduna edo «arduraduna»: pertsona fisiko edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzua edo tratamenduaren erantzulearen izenean datu pertsonalak tratatzen dituen beste edozein erakunde.

c) Datuen babeserako ordezkaria edo (DBO): Tratamenduaren erantzuleak eta arduradunak datuen babeseko ordezkari bat izendatuko dute, betiere baldintza hauek betetzen badira:

– Tratamendua agintari edo erakunde publiko batek egitea, beren funtzio judizialaz baliatuz aritzen diren auzitegiak izan ezik.

– Erantzulearen edo arduradunaren jarduera nagusiak tratamenduaren ingurukoak badira, eta izaera, eragina edota helburuak kontuan hartuz, interesdunek maiztasunez eta sistematikoki begiratzea eskatzen badute.

– Erantzulearen edo arduradunaren jarduera nagusiak, datuen babeseko araudi orokorreko 9. artikuluari jarraituz, datu pertsonalen kategoria berezien eskala handiko tratamendua, eta 10. artikuluan jasotzen diren zigor eta arau hauste penalen tratamendua badira.

Aurreko atalean aipatutako lanpostu funtzionalez gain (horietako batzuk aurretik ezarrita zeuden dagoeneko), eraginkortasun handiagoa dela eta, Arabako Foru Aldundiko berariazko lanpostu hauek aldatzen dira, eta datuen babeseko ordezkariaren eginkizunak ezartzen dira:

Tratamenduaren erantzuleak informazio eta zerbitzuen tratamenduen kudeatzaileen laguntza jaso dezake, aldez aurretik izendatu baditu. Hau da, bere jarduera esparruaren barruan dauden

informazio pertsonaleko tratamenduak kudeatzen dituzten unitate organikoetako erantzuleen laguntza jaso dezake.

Informazio eta zerbitzuen tratamenduen kudeatzaileek informazio eta zerbitzuen tratamenduen jagoak edo bere jarduera esparru bereko pertsonak izendatzea proposatu ahalko dute, eta tratamendu horien segurtasunaren alderdi jakin batzuk kudeatzea eskatuko die.

Aurreko atalean adierazitako lanpostu funtzionalek eta Arabako Foru Aldundiaren zerbitzura lanean ari diren gainerako langileenek, beren eginkizunak garatzean ikusten duten informazioa tratatuko dute, dagokion legezko araudian ezarritako baldintzen arabera.

Lanpostu horien eginkizunen deskribapen generikoa eranstean da, eta aurretik, datuen babeseko lege organikoak, eta gaur egun, datuen babeseko araudi orokorrak eragindako datuen kudeaketaz arduratzen ziren egiturazko lanpostu bakoitzak datuen tratamenduen eta babesaren arloan zituen eginkizunak ordezkatzeko ditu.

Eginkizun horiek Aldundiko langileen eginkizunen eta betebeharren laburpena izeneko agirian zehazten dira, I. eranskinean, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an ezarritako 2016/679 araudiari (EB) jarraituz.

Hori dela eta, Aldundi honek, egitura funtzionala eguneratzea egokitzen jotzen du, informazioaren tratamendua datuen babeseko araudi orokorraren baldintzen arabera berma, arautu eta kontrola dadin.

Horren arabera, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak proposatuta, gaur egindako bilkuran hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehen a. Aldatzea Arabako Foru Aldundiaren fitxategien segurtasunerako egitura funtzionalaren aldaketa, 480/2007 Erabakiaren bidez ezarritakoa, datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Legearen arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 araudiaren (EB) 2016ko apirilaren 27ko eskaerei egokitzeko. Aldundiko langileen eginkizunak eta betebeharrak Erabaki honen I. eranskinean jasotzen dira.

Bigarren a. Arabako Foru Aldundia tratamenduen erantzule izendatzea, eta Gobernu Kontseilua emandako eginkizunaz arduratzea.

Hirugarren a. Fitxategien kudeatzaile izendatu ordez, informazio eta zerbitzuen tratamenduen kudeatzaile izendatzea unitate organikoaren buruak, beren jarduera-esparruan kudeatzen duten informazio pertsonaleko tratamenduei dagokienez. Dena den, beren Unitateetako jagoak laguntza ere jaso dezakete, zenbait baldintza betetzen badira.

Datu pertsonaleko tratamenduen jardueren erregistroan, www.araba.eus web-orriko datuen babeseko atalean argitaratutakoa, tratamendu bakoitzerako kudeatzaileak aipatzen dira.

Laugarren a. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko titularrari Erabaki honetan ezarritakoa aldatu, garatu, gauzatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapenak edota ebazpenak emateko eskumena ematea.

Bosgarren a. Onartzen den egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Gasteiz, 2018ko azaroaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Zerbitzu Orokorraren zuzendaria

ANA MARÍA DEL VAL SANCHO

I. Eranskina

Arabako foru aldundiko langileek, europako parlamentuak eta kontseiluak 2016ko apirilaren 27an ezarritako araudiaren (eb) arabera (dbao) dituzten eginkizunen eta betebeharren laburpena

1. Tratamendu erantzulearen eginkizunak

Tratamenduaren erantzule gisa, eginkizun hauek dagozkio Gobernu Kontseiluari:

a) DPBLOk eragindako datuen tratamenduak zer xede, zer eduki eta zer erabilera izango duen erabakitzea.

b) Tratamenduaren arduradunak eta datuen babeseko ordezkari, informazio eta zerbitzuen tratamenduen kudeatzaile eta segurtasun erantzule gisa aritzen diren pertsonak izendatzea.

2. Tratamendu arduradunaren eginkizunak

Tratamendu arduradunari eginkizun hauek dagozkie:

a) Tratamendu hori gauzatzea, Arabako Foru Aldundiak erabakitzen duen baldintzen arabera.

b) Eskatutako jarduera zuzen gauzatzea Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

3. Datuen babeserako ordezkariaren (dbo) eginkizunak

Datuen babeserako ordezkariari eginkizun hauek dagozkio:

a) Tratamenduaren arduradunari edo erantzuleari informazioa ematea eta aholku ematea, eta haiekin lankidetzan ari diren AFAko langileei, datu pertsonalen babeseko araudi orokorrean eta Europar Batasuneko edo Estatu kideetako datuen babesari buruzko beste xedapen batzuetan ezarritakoaren arabera dagozkien betebeharrak jakinaraztea.

b) Datuen babeseko araudi orokorrak, Europar Batasuneko edo Estatu kideetako datuen babeseko beste xedapen batzuek eta datu pertsonalen babesaren arloko tratamenduaren erantzulearen edo arduradunaren politikak ezarritakoa betetzen dela ikuskatzea, tratamenduetan eta kontu ikuskapenetan parte hartzen duten langileen erantzukizunen esleipena, kontzientziarioa eta prestakuntza ere barne hartuz.

c) Datuen babesak duen eraginaren ebaluazioari buruz eskatzen zaion aholkularitza ematea, eta aplikatzen dela egiaztatzea, datuen babeseko araudi orokorraren 35. artikuluan ezarritakoarekin bat.

d) Lankidetzan aritzea kontrol agintaritzarekin.

e) Kontrol agintariekin harremanetan jartzea tratamenduaren inguruko gaietarako, datuen babeseko araudi orokorreko 36. artikuluan aipatzen den aurretiko kontsulta barne, eta hala badagokio, beste edozein gairi buruzko kontsultak egitea eta segurtasuna urratzen den edozein kasu jakinaraztea.

Datuen babeseko ordezkariak bere eginkizunak gauzatzean, behar bezalako arreta jarriko die tratamendu jarduerekin lotutako arriskuei, tratamenduaren izaera, eragina, testuingurua eta xedeak kontuan hartuz.

4. Segurtasun erantzulearen eginkizunak

Segurtasun erantzuleak, arlo teknologikoan, bere eginkizunak betetzen lagunduko dio datuen babeseko ordezkariari, eta zehazki, eginkizun hauek ditu:

a) Arriskuak aztertzea, eragina ebaluatzeko txostenak egiteko.

b) Aurkitutako arriskuei aurre egiteko neurriak ezartzeaz arduratzea.

c) Ezarritako neurrien egokitasunaren eta eraginkortasunaren aldizkako kontrolak ezartzea.

- d) Segurtasuneko arautegia onestea eta zabaltzea DBOrekin lankidetzan.
- e) Segurtasuna urratzen bada, DBOri jakinaraztea.
- f) Tratamenduen auditoretzak egiten laguntzea.

5. Informazio eta zerbitzuen tratamenduen kudeatzaileen eginkizunak

Hona hemen informazio eta zerbitzuen tratamenduaren kudeatzailearen eginkizun zuzenak:

- a) DBO izendatutakoari tratamendu berriak eta daudenen aldaketak jakinaraztea, tratamenduen jardueren erregistroa eguneratzeko.
- b) Tratamenduen jagoleak izendatzea.
- c) Datuen titularrekin bitarteko gisa jardutea.
- d) Segurtasunaren inguruko araudia zabaltzea bere unitatean, eta bere ardurapean dauden langileak kontzientziatzea.
- e) Eragindako pertsonen eskubideak baliatzeko eskaerak erregistratzea, dagokion jarduerak egitea eta erantzuna prestatzea.
- f) Informazio pertsonalaren sarrerak eta ateratzeak kontrolatzea.
- g) Aurkitutako arriskuen kontra hartutako segurtasun neurriak betetzea.
- h) Datu aktiboak berreskuratzen direla egiaztatzea, eta erabilgarriak ez diren fitxategi historikoetatik.
- i) Segurtasuna urratzen bada, DBOri jakinaraztea.
- j) Lokaletarako eta informaziorako sarbideen baimenak kudeatzea.
- k) DBOrekin eta segurtasun erantzulearekin harremanetan jartzea aholkatzea eskatzen duen tratamenduaren kudeaketak eragindako edozein gaitarako.

6. Informazio eta zerbitzuen tratamenduen jagoleen eginkizunak

Hauek dira tratamendu jagolearen eginkizunak:

- a) Tratamenduari kudeatzaileari tratamenduaren kudeaketarekin lotutako edozein gorabehera esanguratsu edo alderdi jakinaraztea.
- b) Tratamenduaren kudeatzaileei egokitzat jotzen dituzten alderdietan laguntzea.